

EUSKAL ZINEMAREN GALA HANDIA



Euskal Zinemaren Gala Handiko protagonistak eta sarituak.



Euskadiko Filmategiak Ana Díez zuzendaria saritu zuen.

NAIA ARANTZAMENDI

Euskal zinemako emakume profesio-
nalak erdigunean jarri eta aldarri eginez
ireki zuten bart Euskal Zinemaren Ga-
la Handia Victoria Eugenia antzokian.
Miren Gaztañaga eta Ane Gabarainek
ospakizunez jositako gaua gidatzeko
ardura izan zuten.

“Zinema euskaraz egitea ez da erra-
za izan eta emakume profesional gisa

Gurea, guretik, gurekin

bidea egitea ere ez, baina istorio ho-
nen parte gara, eta hala izaten jarraitu
nahi dugu. Historia kontatzen jarraitu
nahi dugu eta atzetik datozenentzat
erreferente izan. Hemen jarraitzen du-
gun bitartean gure historiak aurrera
egingo du”. Itziar Aizpuru aktorearen

emozioz jositako hitzek gaua goi-goi-
tik abiatzea eragin zuten.
Hain zuzen ere, “hemen gaude”
horretatik abiatuz, Maialen Belokiren
zuzendaritza berria txalotu eta, aldi be-
rean, Lucía Olaciregui zein Jose Luis
Rebordinosi agurreko txalo zaparra-

darekin jarraitu zuen gauak. “Eskerrak
eman behar dizkiogu euskal zinemaren
industriari, benetan babestuta sentitu
gara”, esanez agurtu zen Rebordinos.
Sektorearen bihotza eta eskuak di-
ren profesionalak erdigunean jarri eta
sari banaketari heldu zioten gidariek.

Gidoi Elkarrekin SGAErekin batera Eus-
kal Herriko Gidoigile Onenaren Saria
eman zioten Alauda Ruiz de Azua gi-
doilari eta zuzendariari, hain zuzen ere,
2025eko Donostia Zinemaldian Urrezko
Maskorra irabazi zuen *Los domingos*
filmaren gidoiagatik. Ez zen, ostera,
filmak jaso zuen sari bakarra izan. Zi-
nema aretoetara ikusle gehien eraman
dituen euskal ekoizpena izateagatik
EZAE Saria bereganatu baitzuen.

Gauak, gainera, izan zuen berri-
kuntzatik, *Ander eta Yul* (1989) zahar-
berritu ondoren Euskadiko Filmategiak
Ana Díez zuzendari nafarra saritu bai-
tzuen. Kamera atzeko lanetik aurre-
rako jauzia eman eta EABren Distira
sariak Aitziber Garmendiaren lanaren
bikaintasunaz gain, eraikitako ibilbi-
dearen sendotasuna eta konpromisoa
nabarmendu zituen.

Kultura sustatzeaz gain zaintzea ere
garrantzitsua dela oinarri hartuta, Isa-
bel Octavio ETBko zuzendariak EITB
Egile Berriak Saria eman zion Alberto
Gastesi zuzendariari. “Babesa eskaini
nahi dizuegu egile berrioi, zuen isto-
rioak hemen sortu eta mundu guztira
zabaldu daitezen”.

Gaua borobiltzeko unea, ostera,
Kandido Uranga eta Zorion Egileo-
rren eskutik etorri zen. “Profesional
aparta, ausarta eta konprometitua”
bezala definitu zuen bikoteak lankide
zein lagun Jose Ramon Soroiz, aur-
tengo Zinemira Saria jaso bitartean.



LAS CIEGAS HORMIGAS | PRODUCCIÓN, COLOR, SONIDO Y ENTREGA



MASPALOMAS | POSTPRODUCCIÓN COMPLETA



LA CENA | PRODUCCIÓN Y POSTPRODUCCIÓN COMPLETA

HACEMOS POSTPRODUCCIÓN COMO SE
HACE EL CINE: **CON CRITERIO, CON TIEMPO
Y CON UNA MIRADA PROPIA.**
ACOMPANAMOS PELÍCULAS.



UN ESTUDIO, UN FLUJO.
DIEZ AÑOS CONTANDO HISTORIAS.

elamedia

E S T U D I O S

ESTUDIOS DE POSTPRODUCCIÓN,
LABORATORIO, SONIDO Y VFX



DALE FORMA
A TUS PROYECTOS
CON ELAMEDIA

PART OF

sideral

ALIVE

RAW

laivingston

